

# AGENDA 21eko FOROAREN AKTA



## ELIKADURA, OSASUNA ETA BASERRIA

-Berriketaldi dastatua-

2019ko apirilaren 11n, ostegunean, 18:30etik 20:00etara.

Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoan

Adin eta begirada desberdineko pertsonak elkartu gara eta bertako produktuez osatutako mahaiaren inguruan, elikadurari, osasunari eta baserriari buruz hitz egin dugu. Arretaz eta asmo onez, horretan eman dugu legealdi honetako Agenda 21eko Foroaren azken lansaioa.

Agiri honetan jaso ditugu arima eta xarma izan duen topaketa honetako gako batzuk; horiek eraman gaituzte pentsatzera, hausnartzera baina baita gozatzera ere. Atsegina izan da!

### EDUKIEN GIDOIA:

1. Helburua eta planteamendua
2. Parte hartzaileak
3. Berriketaldi dastatua: solasaldi aberats baten gakoak
4. Eskerrak ematea eta amaiera

# 1. HELBURUAK ETA PLANTEAMENDUA

Legazpiko Agenda 21eko Foroaren lantsaio berri honetan gure baserrietara eta lehenengo sektorera hurbildu nahi izan dugu, gure elikaduran eta osasunean eragin handia dutelako.

Horrela, aurtengo ikasturtean "Baserriaren kultura" izeneko gaia landu dute Legazpiko ikastetxeetan Eskola Agenda 21eko programaren barruan. Horren aitzakian ondorengo galderei buruz hitz egitea pentsatu dugu:

- *Ba al dakigu benetan zer jaten dugun?*
- *Zer ematen digute gure inguruko baserriek bertako produktuak jan nahi baditugu?*
- *Janariei dagokienez, nola egin dezakegu kontsumo arduratsua goa?*

Eta nola egin dugu hori? Formatu desberdin bat erabilia: berriketaldi dastatua:

- Soslai desberdineko **protagonistekin**: inguruko 2 baserritar gazte –Ander eta Eneko-; Josune Makaia, bertako produktuen ekoizpena eta kontsumoa sustatzen duen Bertatik Bertara proiektuko koordinatzailea; Legazpiko ikastetxeetako ikasle eta irakasleak; eta Forora hurbildu diren herritar eta udal ordezkariak.
- Eta mahaian gure baserrietako gazta, intxaurrak, ogia, sagarrak, zukua eta madalenak.

Bilera atsegina izateaz gain oso emankorra izan da: gustura entzun ditugu gazteek ikasitakoak eta egindako hausnarketak; horiei Anderren eta Enekoren begirada eta bizipenak gehitu dizkiegu; eta guztiarekin gure gizartean eta kulturaren baserriak duen betekizunari buruz eta lehenengo sektorea zaindu eta bultzatu beharri buruz hausnartu dugu.



## 2. PARTE HARTZAILEAK

22 pertsonak hartu dute lansaioan parte -13 emakume eta 9 gizon-. Eskerrik asko guztioi, elkarrekin eraiki dugun solasaldia ekarpenekin, galderekin, bizipenekin eta ahotsekin aberastu duzuelako.

### Herritarrak:

Juan Francisco Valbuena (Buztintegi) - Manuel Fernandez (Nagusilan) – Mikaela Garcia (Nagusilan) – Pilar Makibar – Edurne Ugarte (Legazpiko Ingurugela).

### Eskualdeko baserrien eta lehen sektorearen izenean:

Ander Ibareguren (Lakiola baserriko ekoizlea) – Eneko Solana (Haristizabal baserriko ekoizlea) – Josune Makaia eta Aitor Mendia, UGGASako Bertatik Bertara proiektuko koordinatzaileak.

### Eskola Agenda 21eko programan parte hartzen duten Legazpiko ikastetxeetako irakasle eta ikasleen izenean:

Maite Odriozola (Haztegi ikastolako irakaslea) – Mikel Altuna, Asier Telleria eta Aner Telleria (Haztegi ikastolako ikasleak) – Koro Zabaleta (Olazabal institutuko irakaslea) – Mainer Encina eta Mainer Jimenez ( Olazabal institutuko ikasleak) eta Iñaki Mauleon (Domingo Agirre eskolako irakaslea).

### Udal arduradun politiko eta teknikoak:

Koldobike Olabide (alkatea) – Ane Miren Agirrezabal (nekazaritzako eta hirigintzako teknikaria) – Inma Hernandez (industria, merkataritza, turismo eta ingurumen teknikaria).

Iciar Montejo eta Zorione Aierbe, Prometea, dinamizazio-lanetan.

### 3. BERRIKETALDI DASTATUA: SOLASALDI ABERATS BATEN GAKOAK

Inma Hernandez Agenda 21eko teknikariak eta Ane Miren Agirrezabal hirigintzako eta nekazaritzako udal teknikari berriak ongietorria eman eta gaurko gaia azaldu dute.

Segidan ikasleek hartu dute hitza eta ikasturtean zehar baserriaren kulturari buruz landu eta ikasi dutena partekatu dute taldearekin. Eta hausnarketa horiek izan dira ondorengo solasaldia elikatu dutenak, era informalean eta sortu diren hausnarketa berriak eraginez.

Eta hori guztia ondorengo irudian laburbildu dugu:





## IKASLEEN LEHEN HAUSNARKETAK



**Zer landu dugu ikasturtean zehar baserriaren kulturari buruz? Eta zer ikasi dugu? Zertaz ohartu gara?**

Jarraian, Legazpiko ikastetxeetako adin desberdineko ikasleen hainbat esperientzi eta emandako urratsak partekatu ditugu:

- Haristizabal baserria bisitatu dugu; bertan zer egiten den eta nola egiten den ikusi dugu, hango filosofia ezagutu dugu, ogia egiteko hartu duten konpromisoa,... Bisitan baserriko bizitza eta lana ez dela behar bezala ezagutzera ematen konturatu gara.
- Kartelak egin ditugu: baserriari buruz, lanabesei buruz, animaliei buruz, ekoizten diren elikagaiei buruz,... Eta horrek agerian utzi du gure ezjakintasuna hainbat gairi buruz.
- Legazpiko bizilagunen erosteko ohiturak aztertu ditugu; eta herriko denda txikietan, supermerkatuetan edo internetez erostearen abantailak eta desabantailak aztertu ditugu.  
Ariketan herriko denda txikietan erosteak dituen abantailak ikusi ditugu (kalitatea, gertutasuna, gure baserriak babestea,...); eta supermerkatuetan eta internetez erosteak dituenak ere ikusi ditugu (ordutegi zabala, erosotasuna, prezioa, aukera). Eta ideia bat otu zaigu: merkatuko ordutegia egokitzeak herritarrak gerturatzea eta hemen erostea ekar dezakeela uste dugu.
- 2 emakume baserritar elkarrizketatu ditugu, Mari Tere eta Arantxa, haien errealitatea gertutik ezagutu nahi izan dugulako. Eta haiek esan digute gizonezko gehiago daudela baserrietan baina egoera hori aldatzen ari dela; teknologiak ere baserriko lanerako oso lagungarriak direla esan digute.
- Gaiarekin lotutako galderekin lehiaketa bat egin dugu eskolan. Eta ez da erantzun guztiak asmatu dituen talderik egon. Zer pentsa utzi horrek.....

## TALDE HIZKETALDIA

Maiderek, Asierrek, Anerrek, Maiderek eta Mikelek esanak elkarrizketa sortu du taldeko kideen artean; Enekok eta Anderrek ekoizle gisa dituzten bizipenak kontatu dituzte; eta guztiok hitz egin dugu kontsumitzaile eta ingurunearekin, baserriarekin, elikadurarekin eta osasunarekin sentsibilizatutako pertsona garen aldetik.



Indarra hartu duten hainbat ideia laburbildu ditugu jarraian:

### Erostean ditugun gure ohiturei buruz eta aukera berriei buruz:

- Erosotasuna (ordutegiak, produktuen aukera...) faktore erabakigarria da, gure elikagaiak erosterakoan ditugun ohituretan eragiten duena.
- Era berean, ekoizleen eta kontsumitzaileen artean zenbat eta bitartekari gehiago egon, orduan eta txikiagoa da ekoizlearen etekina eta errentagarritasuna.
- Horren haritik, baserriko produktuak supermerkatuetan eta azalera handietan eskuragarri egon daitezkeen arren, kontu handiz aztertu beharreko gaia da, gerta baitaiteke supermerketuek presio handia egitea (prezioan, bolumenean,...) eta hori baserrietako lan duinaren aurka joan daiteke.
- **Legazpirako proposamena:** aukera eta eredu berriak sortzen ari dira eta interesgarria da horiek ezagutzea. Horiek ikusi eta agian Legazpin egin daiteke proba. Adibidez:
  - Elikagunea Azpeitian (<http://elikagunea.eus/>) edo "Ereindajan" proiektua Debagoienan (<http://www.ereindajan.eus/aurkezpena/>): eredu kooperatiboan oinarrituta "dendak" sortzen dira eta denda horietan ekoizleek kontsumitzaileen esku uzten dituzte euren produktuak.
  - Interesgarria izango litzateke antzeko zerbait aztertzea Legazpirako; taldeak ekimen horrek harrera ona izango lukeela uste du.

### Jaten dugunaren prezioari, kalitateari, zaporeari,.... buruz:

- Birplanteatu egin beharko genuke prezioari buruz dugun iritzia eta "baserriko produktuak edo produktu ekologikoak zergatik diren garestiago" galdetu ordez, beste galdera hau egin beharko genuke geure buruari: "zergatik dira supermerkatuetako elikagaiak merkeagoak?" Hain merkeak izateko, nola ekoiztu dira? Zenbat diru geratu zaio ekoizleari?
- Bestaldetik, baserriko produktuak ez ditugu osasunarekin bakarrik lotu behar; badaude beste hainbat kontu, hala nola:
  - Zer gertatzen da oso urrutitik iristen zaizkigun produktu ekologiko eta osasungarriekin? Ze inpaktu sortzen du horiek garraiatzea?
  - Zer gertatuko litzateke gure paisaiatik baserriak desagertuko balira? Jakitun gara ze garrantzitsuak diren gure baserriak horrenbeste baloratzen dugun eta sustatzen dugun paisaia zaintzeko eta mantentzeko?

### Baserrian bizitzeari eta lan egiteari buruz:

- Lehenengo sektorea eta baserrian lan egiteko era (lanbide eta bizimodu gisa) aldatzen ari dira poliki-poliki. Belaunaldi berriek dagoeneko bizi dute bilakaera eta aldaketa hori baina gehiago gizarteratzea falta da.
  - Adibidez, eredugarria izaten ari da Bizkaigane elkartean egiten ari diren lana, lan-dedikazioa, txandak,... hobeto antolatzerakoan.
  - Eta modernizazioak, makinek, plangintzek,.... asko laguntzen dute.
- Gero eta sentsibilizatuago gaude bertako produktuekiko eta horrek igo egiten du eskaria; horren aurrean ezinbestekoa da ekoizle gehiago egotea eta hor dugu erronka.
  - Oro har, ikastetxeetan ez da baserria eta bere baloreak transmititzen; ez da azaltzen baserriak ematen duen guztia eta nolakoa den bertako bizimodua. Hori egin ordez desabantailak erakusten dira, eskatzen duen konpromisoa azpimarratzen da....
  - Zorionez, badaude esperientzia eredugarriak; adibidez, Kataluniako eskola batean lantzen dutena: eskola-baratza izenekoa.
  - Eta aukera erraza dugu: kontsumitzaileak baserrietara gerturatzea, hori baita jaten duguna gertutik ezagutzeko modua.

### Baserrian emakumeen presentziari eta protagonismoari buruz:

- Askok aldatu da egoera. Aurreko belaunaldietan gizonen protagonismoa handiagoa bazen ere, eta lana banatzen bazen ere, gaur egun gero eta emakume gehiago daude baserrietan eta handiagoa da haien protagonismoa.

### Eskualdean lehenengo sektorearen egoerari eta hura sustatzeko ekimenei buruz:

- Sentipen orokorra da tokiko produktuekiko eta baserriekiko kontzientzia areagotzen ari dela herritarren artean; eta era berean, “zerbait gehiago egin beharra dago”.
- Bertatik Bertara proiektuko koordinatzaileak baikor dira, sektorean 5 urte lan egin eta gero.
  - Nabarmena da baserrian gauzak aldatzen ari direla, Urola Garaiko eskualdeko zenbait baserritara gazteak iritsi direlako eta horiek lan egiteko eta harremanak izateko era berriak ekarri dituzte, egokitzeko borondatearekin (beraiek eta baita kontsumitzaileekiko ere) eta laguntzeko asmoarekin...
  - Eta garbi geratu da mezu hau: guk dugu, kontsumitzaileok dugu, elikagaiak erostean gure dirua nola gastatuko dugun aukeratzeko boterea eta egin beharra.
  - Bideo labur honetan Bertatik Bertara proiektuaren prozesua ikus daiteke: <https://www.youtube.com/watch?v=H1bIDVgkSOc>
- Azkenik, eta laster hauteskunde kanpainean sartuko garela aprobetxatuz, bi mezu eman nahi ditugu:
  - Ekoizleen aldetik: “ekoizle txikiak eta ekimen txikiak lagun daitezela eta ez handiak bakarrik”.
  - Herrian bertan baserriak kontsumitzaileekin harremanetan egoteko era berriak aztertzen jarrai dadila, horretarako erreztasunak emanez.

Hausnarketa sakonak, ondorengo baiezatzeari ahalbidetzen digutenak: “bidea egiten ari gara, elkarren beharra dugu eta oraindik badago zer aldatu, gu geugandik hasita”.

## 4. ESKERRAK EMATEA ETA AMAIERA

20:00etan puntu-puntu bukatu dugu bilera. Eta irrifarre batekin bukatu dugu, arratsalde eder, goxo eta baliagarria igaro eta gero. Pozik goaz baserria sentitzen duen eta baserrian sinesten duen belaunaldi berria iritsi delako; eta kontsumitzaileok belaunaldi horrekin konprometitu beharra dugu.

**ATSEGINA IZAN DA BENETAN.  
MILA-MILA ESKER GUZTIO!!**